

## Nafarroan euskararen berreskuratzea

Gure hizkuntzak azken bi mendetan jasan duen atzerakada etengabearen paradigmatzat aurkeztu ohi da Nafarroa. Araban, hain zuzen, euskararen gibelerritzea lehendikogoa dugu bere mugak Bernedo eta Kanpetzuko lurretan, eta zehazkiago Kantauri Mendikatean zeudela. XVI mendean Treviñoko lurretan euskara bizirik zegoen, antza, bere berrogeita hamar bat herris- ketatik euskal toponimiaren presentzia hogeita hamabost batean ukaezina delarik.

Nafarroan, bada, euskararen atzerakada geroztikagoa da, gainbeheraren gailurra XIX mende haseran ematen delarik, sekulu osoan prozedura negatibo beraz jarraituz. Zoritxarrez, XX mendeak jarrera bera erakusten digun, gutienez, 70. garren hamarkada arte. Oltza, Galar, Gesalaz, Girgillano, Iltzarbe gisako ibarrak, gehienbat, euskara galdurik igarotzen dira mende honetara. Goñibar, Ollaran, Iza-Gulinak, aldiz, nukleo batzutan mententzen dute euskara. Hala nola, 1904 urtean Iruñeako Apezpikutegiak eginiko in-

kestaren arabera Goñibarren Aizpun eta Goñi herrisketan doktrina haurrei oraindik euskaraz erakusten zitzairen, eta Ollararen, gutienez, Ultzurranen. 1935 urterako, ordea, A. Irigaraien zerrrendetan Goñibar eta Ollarango herri guztiak erdaldunduta azaltzen dira. Muga horien murriztapena, gehienbat, Arakil, Esteribar, Erroibar eta Pirene Mendien hurbilean Aezkoan eta Saraitzun sakontzen da, Errokarietak bere gainbehera bereziaz jarraitzen duelarik. Arakilen, zehazki, aski goiza euskararen desagertzea Etxeberria, Etxarren, Ekai, Zuatzu, Iriberry, gisako herrietan Irurtzunen inguruan, eta berantagoa Huarte eta Irañetan. Agian, Irurtzun beraren eragin negatiboa izan da desagertze heterogeneo horren arrazoa. Demografiaren aldetik, goinafarrera hegoaldeko zat eza gutzen den euskalkiaren desagertzea ez da geografiaz emantekoa bezainbatekoa, zorionez. Izan ere, hedadura geografiko horretan kokaturiko populazio-guneak oso urriak dira, maiz, 10, 15, 30 bizilagunetako herriskak



direla. Printze Bonapartek 1863 urtean eginiko mapa-urteak 1935 urte arterako epean, bataz beste, 28.000 bat nafarrek galdu dute euskal hizkuntza.

Beraz, aipaturiko euskalkiaren hedadura geografikoa gipuzkerarekin edo bizkaierarekin parekatuta askoz lasakagoa da, eta gure hizkuntzak heogaldetik galduriko guneak sasi-inpresio askoz txarragora garamatza.

Nafarroan, birrikitan, erreku-perazio prozesu bat hasi da, bereziki ikastolaren bitartez. 1935. urtetik hona euskararen aldeko saldoa 4.446 euskaldunetakoa da, 1992ko urtea muga gisa ezarrita. Tarte horretan euskal zonaldean euskara galdu dutenak 7.113 izan diren bitartean, erreku-perazioa 11.559 gizabana-koetara hedatu da, bataz beste, emaitza positiboa 4.446koa izaki. Prozesu honetan, gainera, XVI mendean eskualde elebidun hipotetikoa (baina XVIII eta XIX mendetarako, dagoeneko, erdal zonaldean zegoen) herri zenbait sartu behar da, hala nola, Tafalla, Lizarra, Zangotza, Viana. Hauek denak erreku-perazio-gunean aurkitzen dira gaur.

Zoritxarrez, gaur egun, prozedura negatiboaren guneak XX mende arte betidanik euskaldun izaniko Erroibar, Esteribar, Baztan, Ultzama gisako eskualdetan azaltzen dira. Ultzaman eta Baztango herriska batzutan oraindik

aurrera darrai euskararen desagertzeak, hizkuntzaren gaitzespen soziologikoa nabaria delarik.

Dena den, euskarak bere amildegi-zuloa ukitu du, dagoenako, eta erreku-perazio andanan hasia da. Komeni da, bestaldea, Nafarroako mapa hedatuari begirada bat botatzean, halako iruzur batean ez erortzea. Hain zuzen, ezin daiteke prozesu honetan Erribera, besterik gabe, sartu, aski problematikoa gertatzen baita Tuteran, Cintruenigo, Valtierra, Losada batean, hots, Erribera nagusian, euskara inoiz mintzatu denik probatzea, euskal toponimiazko testigutzak falta zaizkigularik. Gu, pertsonalki, Erribera beheko lurrak, gehienbat, inoiz euskararen lurrak izan ez direnekoaren hipotesi aldekoak gara. Sozialki, ordea, komeni da euskara bertan ere sartzea, ipar eta erdialdeko nafarrak euskara erabiltzean oztupoak izan ez ditzen, elebakarrak, normalki, bere elebakartasunera bultzatzen baitu elebiduna gune berean.

Egungo euskararen presentziaz, hezkuntzan ez ezik, administrazioan, lanbidetan, publizitatean, eta abar neurtzeko, komen-dagarria Rosa Ramos Alfarok "Nafarroako euskararen egoera demolinguistikoa eta funtzionala" izenez Bergaran aurkezturiko (eta oraindik argitaratu gabeko) lan baliosoa. Bertara igortzen dut irakurlea datu bila.

Luis M<sup>a</sup> Mujika